

**Jendarterako Liburuzka**

**5**



**Lesbianismoa  
Mugimendu Feministaren  
eta Lesbianen  
Kolektiboen baitan**

**Fecha: 2008 Ekaina**

**Lege erregistroa: BI-2379-08**

**Egileak: Amparo Villar Sáenz**

**Edita: Sexu Askatasunari Buruzko Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa- ALDARTE**

**Koaderno diruz lagunduz: Bizkaiko Foru Aldundia**

## **AURKIBIDEA**

---

- 1. AURKEZPENA**
- 2. LESBIANEN IRUDIKAPENA, 70 URTEETATIK AURRERAKO MUGIMENDU ANTOLATUAREN BIDEZ**
- 3. EUSKADIKO KOLEKTIBOEN EKARPENAK ETA JARDUERAK**
- 4. LESBIANA FEMINISTEN JARDUNALDIAK**
- 5. ERREBINDIKAZIO KANPAINAK**
- 6. LESBIANA FEMINISTEN MUGIMENDUTIK LGTB MUGIMENDURA**
- 7. ONDORIOAK**

## AURKEZPENA

---

Jendarterako liburuxka honek mugimendu feministak eta lesbianen taldeek lesbianismoaren inguruan egindako lana –70etako lehen errebindikazioetatik hasita– zabaldu nahi du, hori ezaguturik, eguneroko jardunean erabili ahal izango baitituzte gaurko GLTB mugimendua osatzen dutenek haien aurreko emakumeek buruturiko lana eta metaturiko jakintza.

Gure usez, mugimendu feministak generoaren eta sexualitatearen inguruan garatutako lana berreskuratzea, aztertzea eta hausnartzea guztiz garrantzitsua da, 70eko hamarkadan emakume feministak antolatzen hasi zirenean sexualitatea borroka eta errebindikazio gai nagusia izan baitzen.

Mugimendu feministak indar handiz bultzatu zuen emakumeen askatasun sexualaren ideia, eta planteatzen zituzten errebindikazioen artean lesbianismoa agertzen zen, hots, emakumeek emakumeekin harremanak izateko duten eskubidea, aukera librea baita. Horrela bada, talde feministek bultzatutako espazio hori gune garrantzitsua izan zen lesbianentzat, elkarrekin biltzeko eta elkarri laguntzeko gune garrantzitsua. Hasieratik bertatik, lesbianen talde berezituak egon izan dira eta ekintza ugari burutu dituzte martxoaren 8a edo ekainaren 28a bezalako data seinalatuetan.

Horiek dira, besteak beste, estigmak markatutako sexualitatea ikusarazteko emakumeek aurrera eramaniko borroka luzearen atal txiki hau ezagutzera ematera bultzatu gaituzten arrazoiak.

## LESBIANEN IRUDIKAPENA, 70 URTEETATIK AURRERAKO MUGIMENDU ANTOLATUAREN BIDEZ

---

Euskadin, lesbianismoari buruzko lehen idazkia *Gay Hotsa* aldizkarian (1977) argitaratu zen; “Har dezagun erantzukizuna” (*Demos la cara*) zuen izenburua eta Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduko (EHGAM) lesbianek idatzia zen, erakundearen barruan lesbianak ere bazeudela agertze aldera. Emakume horiek askatasun sexualaren alde lan egin nahi zuten eta artikuluan gizonezko eta emakumezko homosexualen artean oinarritzko desberdintasunak daudela azpimarratzen zuten. Honela zioten: “Gizonezko homosexualak, gizona den aldetik,

*baditu zenbait abantaila lesbianaren aurrean, lesbianak bazterketa bikoitzari egin behar baitio aurre: emakumea izateagatikoa eta homosexuala izateagatikoa*". Aurrerago, honela azaltzen zuten: "horren adibide argia dugu lesbianismoa bera guztiz ezezaguna izatea. Historian gizon homosexualak nabarmendu izan dira, baina lesbianeaz ez da ezertxo ere esaten, historian oro har emakumeei ezagutzen zaien papera ñimiñoa izaki, lesbianak agertu ere ez baitira egiten". Artikulu horretan bertan, talde feministei dei egiten zaie onar dezaten lesbianismoa emakumeek pairatzen duten zapalketaren parte dela.

Lesbiana modura antolatu ziren lehen emakumeen datuak 1979koak dira, orduan sortu baitzen Bizkaiko EHGAM barruan lehen lesbianen taldea. *Emakumearen Sexual Askatasunerako Mugimendua* (ESAM) izena hartu zuen taldeak eta askatasun sexualaren eta bereziki lesbianismoaren alde lan egitea zuen helburu. ESAMen bildutako emakumeek "*Lesbianismoa*" izeneko dossierra argitaratu zuten (1979).

Txosten horretan, honela definitzen zituen ESAMek emakume lesbianak eta lesbianismoa: "*lesbiana da, besterik gabe, bizitza osoan edo bizitzaren garai batean gehien bat emakumeekiko erakarpen erotikoa sentitzen duena. Lesbianismoa, funtsean, norberaren sexualitatearen adierazpen librea baino ez da, emakume batek beste batekiko/batzuekiko maitasunean gauzatzen dena*" (1979:12).

Lesbianismoaren eta feminismoaren arteko harremanei dagokienean, lehen aipatu txostenean mugimendu feministak duen papera azpimarratzen da, feminismoak abiarazi baitzuen patriarkatuari eta emakumeen askatze sexualari buruzko teorizazioa. Alabaina, "gutxiengo sexuala" deitzen dutenaren parte diren neurrian, zapalketa berezia pairatzen dutela adierazten dute, gainerako emakumeek zuzenean pairatzen ez duten zapalketa. Era berean, mugimendu feministaren ibilbidean heterosexualitateak izan duen nagusigoa aipatzen dute, eta gauza bera jasoko du Feminista Lesbianen Kolektiboak, 1983ko ekainean Madrilen burutu ziren Sexualitateari buruzko jardunaldietarako testuan, 75. eta 76. urteetan sexualitatearen alorrean burututako lana aztertu ondoren, lan guztia ikuspegi heterosexualarekin egina zegoela baieztatzen baitzuten ponentzian.

ESAM taldeko emakumeek planteatzen zituzten galderen artean, amatasunari buruzkoa zegoen. Haiek adierazten zuten, lesbiana izateak seme-alabarik ez edukitzea zekarren. Gaur egun oso modu desberdinean planteatzen da amatasunaren kontua, garai haietan, besteak beste, ez baitziren aurreikusten intseminazio teknikak

eta, beraz, emakume bik osatutako bikoteetan ezin zen amatasunik planteatu, baldin eta seme-alabak izateko gizonezkoekin sexu harremanik ez bazuten.

Bestelako gaiak ere bazituzten eztabaidagai emakume haiek, oraindik orain gaurkotasun handiko gaiak direnak; esaterako, ikusgaitasuna eta nork bere sexu joeraren berri ematea, nori?, noiz? zergatik? *Lesbianismoa* txostenean, bizipen horren aurrean emakumeek hartzen dituzten jarrera askotarikoen lekukotasunak jasotzen ziren.

Iruñean, Feministen Koordinadoran militatzen zuten zenbait emakume lesbianek sortu zuten hango EHGAM 1982an, gizonak eta emakumeak batera abiatzeko asmotan. Emakumeek gidatutako elkarteak izanagatik ere, zera zioten EHGAMeko neskek “...bileretan, mutilen arazoak izaten ziren gai nagusiak... Eduki feminista handiagoa eman behar genion gure borrokari eta emakume ginen aldetik aurrerapauso gehiago eman behar genituen” (1987:1). Egoera horrek eta emakumeen artean eztabaidatu beharrak bultzaturik, feministen koordinadorako emakumeengana hurbildu ziren eta 80ko hamarkadaren bukaerara arte koordinadoraren barruan lan egin zuten, lesbianen batzorde modura. Ondoren, Nafarroako Lesbianen Kolektiboa sortu zuten “*mugimendu feministatik aldendu gabe, baina gure lesbiana nortasunari bultzada handiagoa eman*”<sup>1</sup>.

Lehen aipaturiko arrazoi horiek direla medio, lesbianak erakunde mistoetatik aldenduz joan ziren eta mugimendu feministarekin batera lan egiten hasi ziren.

Hamarkada horretan, 80koan, sortuak dira, halaber, estatu espainoleko lesbianen kolektibo eta mugimendu feministaren barruko lesbianen batzorde gehienak. Madrileko *Colectivo de Feministas Lesbianas* 1980an sortu zen, Bartzelonakoa 1985ean, urte berean eratu ziren Zaragozako, Errioxakoa, Galiziakoa, etab. Talde horiek errebindikazio lan handia egin zuten: hitzaldiak antolatu ikastegietarako edo bestelako elkarteetarako, manifestazioetara eta bestelako ekintzetara deitu, aldizkariak argitaratu eta topaketa eta jardunaldiak antolatu... Horietan guztietan emakume lesbiana askok hartu zuten parte.

---

<sup>1</sup> “Lesbianen mugimendua eta antolaketa” txostena, 1. orrialdea. Euskal Herriko Lesbianen III. Jardunaldiak, 1997ko abendua.

## EUSKADIKO KOLEKTIBOEN EKARPENAK ETA JARDUNERAK

---

Euskadin, antolamendu askotarikoak egon dira lesbianismoaren ikusgaitasunaren alde lan egiteko; batzuetan batzordeak edo taldeak sortu ziren Asanblada Feministen barruan, eta beste batzuetan elkarte independenteak eratu ziren, beti ere feminismoarekin estuki loturik.

- 🇺🇪 1980 Donostiako emakumeen Asanbladan lesbianen taldea sortu zen
- 🇺🇪 1981 Nafarroan, emakume lesbianak EHGAM-en zeuden antolatuta
- 🇺🇪 1982 Nafarroako Koordinadorako lesbiana feministen kolektiboa sortu zen
- 🇺🇪 1985 Bizkaiko eta Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboak sortu ziren
- 🇺🇪 1987 Arabako Lesbianen Kolektiboa sortu zen
- 🇺🇪 1990 Lumatza
- 🇺🇪 1994 A. L. A. (Arabako Lesbianen Alkartea)

Aldian-aldian bilerak egiten zituzten taldeotan, bai ekintzak eta kanpainak antolatzeko bai eta hainbat gaiz eztabaidatzeko.

Lesbianen kolektibo guztiek batera lan eginik, ‘*Sorginak*’ aldizkaria argitaratu zuten 1986. urtetik aurrera. Aldizkariak euskaraz eta gazteleraz idatzita zeuden eta artikuluek lantzen ohi zituzten gaiak, besteak beste, hauek ziren: lesbianismoa oro har, sexu-rolak eta arauak, ghettoa eta gogoeta pertsonalak lesbiana izateak esan nahi zuenaz; bazeuden halaber salaketak, poesia, komikiak, txisteak, marrazkiak, feminismo instituzionalaren kritikak, hizkera sexistari eta abortuari buruz hausnarketa feministak... Horiez gain, manifestazio eta antzerakoetarako deiak eta liburu eta diskoen kritikak ere argitaratzen ziren. Atal berezi batean, taldeak non eta noiz biltzen ziren jasotzen zen, aldizkariak irakurtzen zituzten emakume lesbianek taldeekin harremanetan jarri ahal zitezten eta erreferentzia guneak izan zitzaten.

la hamarkada oso batez, *Sorginak* aldizkariak Lesbiana Feministen Kolektiboetan antolaturik zeuden emakumeen diskurtsoak eta kezkek plazaratu zituzten, bai eta gizarteari luzatzen zitzaizkion eskariak ere. Gai nagusietako bat lesbianen ikusgaitasuna zen, hala nola emakumeak gustuko zituzten emakumeak gizartearen alor guztietan zeudelako ideia. “*LESBIANAK EDONON... Izenburu horren bitartez*

*emakume lesbiana guztiak hartu nahi ditugu gogoan... emakume ezkonduak, seme-alaba eta senarra dutenak, ondoan daukazun lankidea, gure txikitako moja haiek...*” (Sorginak 6. zkia. 1989ko ekaina. Editoriala). “*Gure beharrik behin-behinekoena lesbianen komunitatea eta gure espazioak zabaltzea da*” (Sorginak 12. zkia. 1993ko ekaina. Editoriala).

Sorginak aldizkariaren bitartez Adrienne Rich, Audre Lorde, Monique Wittig eta beste zenbait egile lesbianen ideiak eman ziren ezagutzera eta horien inguruko eztabaida interesgarriak eta batzuetan sutsuak piztu izan ziren. Ildo berean, maiz argitaratzen zituzten munduko beste zenbait tokitako emakume lesbianen taldeek burututako gogoeten, politiken nahiz ekintzen berri ematen zuten artikulua. Esaterako, 1990ko 8. Sorginak-en *Latinoamerikako eta Karibeko Lesbiana Feministen Topaketei* buruzko informazioa zegoen, 1991eko 9. alean Berlingo lesbianen ekintzen gaineko artikulua, eta 12. alean *Arazakeriaren azterketa feministarako alde zurreko gogoetak* izeneko testua plazaratu zen.

Aldizkari horietan landu zen beste gai garrantzitsu bat lege alorrekoa izan zen, hala nola esparru horretan emakume lesbianen berezko beharrak zehazteko egindako saioak. Helburu horrekin, Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboek bat egin zuten Espainiako estatuan lesbianen taldeek bultzatutako plataforma errebindikatiboarekin. Horrela, 1991eko ekaineko 10. Sorginak-en, informazioaz gain, dokumentu horren azterketa argitaratu zen, non ezkontza, herentzia, adopzioa, eta beste zenbait kontzeptu azaltzen ziren.

Beste alde batetik, esan dezakegu umore handiz egindako aldizkariak zirela, eta gehienetan lesbianen bizimodu ustez tragikoari dramatikotasuna kentzeko balio zuten.

Erabiltzen zuten tonu umoretsu eta aldi berean kritiko horren adibidea izan daiteke *LESBIAKUNDE Instituto Lesbiano de la Mujer*<sup>2</sup> balizko erakundea “sustatzeko” kanpaina. Sorginak aldizkari 7. (1990) eta 10. (1991) aleetan bi iragarki agertu ziren erdiko orrialdeetan. Lehendabiziko alean, “erakunde sortu berriaren” izenaz gain, argazki bat agertzen zen –bi emakume biluzik auto batera sartzen– eslogan honekin: *Emakume, aurrera egiteko ordua da*. Bigarren alean, Sofia Erregina eta Gorvachoven emaztea eskutik lotuta azaltzen ziren argazkian, izenburu honekin: *Erakundeen politika egokiek, erreginak berak ‘ulertzen’ du. Besteak konbentzitzen hasita gaude!!*

---

<sup>2</sup> Hitz jokua egiten da, “Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer” baita EAEko Emakumearen Insititutuaren izendapena.



Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboek argitaratutako *Sorginak* aldizkaria neurri handi batean “eskuz” eta oso bitarteko urriez egindakoa izan arren, lesbianeaz, feminismoaz eta lesbianismoaz hitz egiten zuen aldizkari bakarra izan zen 1994ra arte. Urte horretatik eta 1998ra bitartean, aldizkaria ez zen argitaratu; geroago, 1998 eta 1999an, berriro ikusi zuen argia, baina oraingo horretan Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboak bakarrik bultzatuta.

## LESBIANA FEMINISTEN JARDUNALDIAK

---

Lesbianen Euskadiko I. Jardunaldiak 1983ko maiatzean egin ziren Zamalbiden (Gipuzkoa), eta gutxi gora behera 250 emakume bildu ziren, gehienak Hego Euskal Herriko lau herrialdeetakoak eta baten batzuk Madrilekoak. Jardunaldi horietan Emakume Feministen Asanbladetakoa eta EHGAM taldeko emakumeak elkartu ziren.

Euskadiko Lesbianen Kolektiboak sortu ondoren burutu zen lehen topaketetako bat Oriko Jardunaldiak izan ziren; ehundik gora lesbiana elkartu ziren 1987ko maiatzaren 1, 2 eta 3an. Hauek dira han eztabaidatutako gaietako batzuk: lesbiana gisara antolatu beharra eta hori gauzatzeko moduak, emakumeen asanbladen barruko lesbianen batzordeetan edo lesbianen talde autonomoetan; erreforma sozialen aldeko borroka eta bikoteen legeak; maitemintzea, zeloak, desira, sedukzioa...; erakunde sendoagoa sortzeko beharra eta artxibategiak eta liburutegiak osatu beharra.

Iruñean, 1988an, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka antolatu ziren Jardunaldietan, lesbianeiz ezarritako sekretismoa indarkeria mota bat zela planteatzen zuen Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboak azaldutako ponentziak: *“Isiltasuna, egon litekeen erantzunik ankerrena, heteropatriarkatuak erabiltzen duen eraso modu sotil eta labainera bilakatzen da”*.

Lesbianen kolektibo hauen ezaugarrietako bat Europako zenbait herrialdetan (Danimarkan, esaterako) garatzen ari zen eskubide zibilen onspenarekiko jarrera kritikoa zen. Bereizkeria gainditzeko zuten eskubideak eta legeak begi onez ikusten zituzten, baina norbanako ziren aldetik lortu beharreko eskubideak zirela iruditzen zitzaizkien, ez lesbianen bikotea izateagatik; hortaz, ezadostasun nabaria agertzen zuten gizarte ereduarekiko. Haien argudio-bide nagusia zen arau heterosexuala ez zela zalantzan jartzen ez hedabideetan, ez irakaskuntzan ez eta eguneroko bizitzan:

*“nagusi den sexu-eredua eztabaidan jartzen ez badugu, talde berezi eta minoritarioa izango gara beti”* (Sorgiñak 6, 1988):

Eskubideak eskuratzeko borrokak duda-muda sortzen zuen Euskadiko lesbianen taldeen baitan, gai berriak ziren eta horiei buruzko jarrera askotarikoak azaltzen ziren kolektiboen baitan.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran “homosexualentzako eta lesbianentzako eskubideen” aldeko haizeak zetozen Europatik eta gurean ere igarri zen hori. Bilera ugariren ondoren, 1991eko ekainean Bereizkeriaren kontrako Plataforma deitutakoa aurkeztu zuten Lesbianen Kolektiboek eta Estatu Espainoleko Erakunde Feministen Koordinakunde estatalak. Presazko hamabi neurri biltzen zituen Plataformak eta agintari publikoei aurkeztu zizkieten Espainiako legerian beharrezko aldaketak egin zituzten.

Ondorengo hauek dira bereizkeriaren aurkako plataforma haren hamabi puntuak – haietako batzuk onartu egin dira, eta beste batzuk, azkena besteak beste, eztabaidagai dira oraindik ere--:

1. Lesbianismoak eta homosexualitateak ezin dute bereizkeria edo zapalketarako arrazoia izan inongo erakunde publikotan.
2. Sexu joera elementu bereizgarri modura jasotzen duen polizia agiri, espediente edo fitxa oro ezabatu behar da.
3. Estatuak ez ditu diruz lagunduko barneko enplegu- nahiz asistentzia-politiketan gay eta lesbianak diskriminatzen dituzten edo ideia nahiz jarrera homofobikoak zabaltzen dituzten erakunde eta elkarteak.
4. Lesbianismoa eta homosexualitatea Errefuxiatuaren Estatutura biltzeko arrazoi izango dira, jatorrizko herrialdean zigortuta baldin badaude.
5. Izatezko bikoteak (lesbianak, homosexualak nahiz heterosexualak) juridikoki ezagutu behar dira hirugarrenen aurreko eskubideei dagokienetan: herentziak, pentsioak, nazionalitatea, lan baimenak, etxebizitzaren alogera, etab.
6. Ez gara harreman afektiboak instituzionalizatzearen aldekoak, baina gure ustez ezkondu nahi duten lesbianen eta homosexualen bikoteek ezin ezkontzea bereizkeria onartezina da.
7. Gaur egun izatezko bikote heterosexualei onartzen zaien adopzio-eskubidea homosexualen eta lesbianen bikoteetara zabaldu behar da.
8. Banaketa edo dibortzio kasuetan lesbianismoa edo homosexualitatea ezin izango dira argudio gisa erabili seme-alaben zaintza ukatzeko.

9. Lan arautegietan berriaz aipatu behar da ez dela bereizkeriarik egongo sexu joera dela eta.
10. Osasun sisteman, bereziki ginekologia eta psikologia alorretan, praktika heterosexualen pare hartuko da kontuan praktika lesbikoa.
11. Lesbianismoa eta homosexualitatea diskriminatuko ez dituen informazio sexuala bermatuko da hezkuntza sistema osoan.
12. Lesbianismoa inguratzen duten ikusezintasuna eta sentsazionalismoa uxatzeko, lesbianen presentzia jasoko duten ikerlanak, argitalpenak, produkzio artistiko eta literarioak, etab. bultzatu eta sustatuko dituzte botere publikoek.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran lesbianen taldeak nahiko koordinaturik eta antolaturik zeuden Espainiako estatuan, eta horren lekuko dira Bartzelonan 1991ean egindako Europako Lesbianen Jardunaldiak: Europa Mendebaldeko ia herrialde guztietako ordezkariak bildu ziren eta, lehen aldiz, garai haietan “Ekialdeko Europa” deitu herrialdeetako lesbiana talderen bat ere bertaratu zen. Jardunaldietako gai nagusiak arrazakeria eta bakea izan ziren eta Israeleko Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimenduko emakume batek gidatu zuen horri buruzko eztabaida tailerra.

Hori baino lehen, 1987ko urtarrilean, Lesbianen topaketa estatuala burutu zen Bartzelonan eta 200 bat emakume bildu ziren zenbait ponentzia aztertzeko. Bartzelonako lesbiana feministen kolektibokoek taldea nola sortu zen azaldu zuten, zer egiten zuten eta zenbat emakume biltzen zituzten. *Lesbianismoa, konpondu gabeko arazoa* txostenak arau heterosexuala ezartzeak dakarren indarkeria azaltzen zuen. Beste kolektibo batzuetako emakumeek mugimendu feministak lesbianentzat duen garrantzia azpimarratu zuten, emakumeari duen balioa ematen eta emakumeen sexu grina errebindikatzeko delako.

Handik urtebetera, 1988ko ekainean, Lesbianen estatuko Jardunaldiak antolatu ziren, eta horren karira 2000 emakume elkartu ziren Madrilen. Ponentziak ugariak eta askotarikoak izan ziren, “*probintziako lesbiana nobia bila*” izena zuen txosten ludikotik hasita, Madrileko feminista lesbianen kolektiboak aurkeztutako gogoetaraino, non euren helburu eta bizipenak aurkezten zituzten.

*L`eiss violeta* gazte katalanen taldeak bikote harremanak hautsi beharraz, bortxakeriaz eta botere harremanez idatzi zuen; Amazonen sareak emakumeen arteko maitasuna

aztertzeko euren modua azaldu zuen, eta Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboak eta Sexualitate Batzordeak pornografiak zuten ikuspegia agertu zuten.

Galizian ere, feminista lesbianen bi topaketa garrantzitsu burutu ziren 1985ean, eta militante feminista lesbiana ezagunek euren gogoetak eta eztabaidagaiak agertu zituzten.

## ERREBINDIKAZIO KANPAINAK

---

Jardunaldi, hitzaldi, jai, kanpaldi edo zine maratoiak antolatzeaz gain, Euskadiko Lesbiana Feministen Kolektiboek helburu eta lehentasun argi bat zuten: kalera atera lesbianismoaren inguruko gizarte isiltasuna eta lesbianek zuten bizimodu bitarikoa salatzen. Kanpaina ugari bultzatu zituzten, eduki askotarikoekin; gehienak gizarteari oro har bideratuak ziren eta hizkuntza politiko erradikala nahiz ironia baliatzen zuten horretarako.

Martxoaren 8ko ospakizunen harian, *“Zergatik zara heterosexuala?”* lelo nagusia zuen kanpaina antolatu zuten, eta garai hartan bai afitxea bai triptikoa zirrargarriak gertatu ziren, gizarteari bueltan baitzihoakion normalean lesbiana askok erantzun behar izaten zuten galdera (*eta zu, zergatik zara lesbiana?*).

Beste kanpainetako bat *“Lesbianak edonon”* izenekoa izan zen, eta karteletan elkarrengandik oso desberdinak ziren emakumeak –bai lesbianismoa onartzeko manerari bai bizimoduari dagokienean– agertzen ziren. Kanpainaren helburu nagusia lesbianek beti eredu bakarrari segitzen diotelako estereotipoa baztertea zen.

Zenbait elkarte feministek lagunduta (Euskadiko Emakumeen Asanbladak, Egizan, Lanbroa, Matarraskak, Mujeres Libres eta Agora Feminista), Lesbianen Kolektiboek *Emakunderen Ekintza Positiborako I Planaren Berrikusketa Kritikoa* egin zuten 1992an; txostena Emakunderi helarazi zioten eta ehunka kopia egin ziren zenbait erakundetan banatzeko. Horren bitartez, gero eta gehiago garatzen ari ziren berdintasun politikei egiten zizkieten eskaerak plazaratu zituzten lesbianen taldeek, bereziki berdintasun planei buruzkoak. Hausnarketa dokumentu horretan Planaren alorrak, xedeak eta ekintzak aldatzeko zenbait neurri proposatzen zituzten, lesbianismoa kontuan hartzeko helburuarekin. Proposamenok hainbat alorretakoak ziren: kultura, hezkuntza, legeak, enplegua, prestakuntza, lan harremanak, gizarte segurantza, osasuna eta gizarte zerbitzuak...

Feminista lesbianek indarrez aldarrikatzen zuten erakunde publikoek jarrera aktiboa hartu behar zutela gizartean hedatutako jokaera homofobikoen, intoleranteen eta diskriminatzaileen kontra. Kasu jakin horretan, emakume lesbianen bereizkeria gehiago ez legitimatzeko eskatzen zioten Emakunderi.

“Sexu Aniztasuna” nabarmentzen hasi zen, eta ez bakarrik teoriarik; 90eko hamarkadaren hasieran idazki eta albiste ugari agertu ziren trabestismoaren eta transexualitatearen inguruan, eta horrek garrantzi handia izan zuen lesbianek arreta eman ziezaioten sexu aniztasunaren gaiari.

Garai hartan, halaber, boladan zeuden hainbat testu feminista, esaterako, Gayle Rubin teoriko feministarena (“Sexualitatearen teoria erradikalerako oharra” – 1989), edo *‘Nosotras que nos queremos tanto...’* aldizkarian argitaratu ziren Madrileko Feminista Lesbianen Kolektiboak itzulitakoak: horien artean, lesbianen bizitza sexualari buruzko Margharet Nichols-en lana (“Sexualitatea: galderak eta garatzen ari den teoria” – 1992). Testu horiek eta beste batzuek pentsamendua astintzea lortu zuten eta kolektiboen baitan guztiz erroturik zeuden zenbait “egi” zalantza jarri zituzten.

Kolektiboetako lesbianen artean jarrera desberdinak zeuden ikusgaitasuna eta sexu aniztasuna aztertzerakoan eta gai horiei ekiterakoan eta, besteak beste, horrek ekarri zuen Bizkaiko kolektiboaren zatiketa eta lesbianen talde berri baten sorrera: Agerian Lesbianen Taldea.

Taldekoek onuragarritzat jotzen zuten mugimendu feministarekin batera egindako lana eta harekiko harremana, baina homosexualen elkarrekin elkarlana sakontzeko unea heldua zela ikusi zuten; are gehiago, instituzioetan lege berdintasuna lortzeko bidean pauso garrantzitsuak ematen ari ziren garaia izaki. Adibideren bat ematearren, orduan onartu zen Adopzioaren legea (1987) aipa daiteke, non ez zen debekurik jartzen gay edo lesbianek, banaka, umeak adopta zitzaten; orduantxe sortu ziren batasun zibilen lehen udal erroldak (lehendabizikoa Gasteizen ezarri zen, Cuerdo jauna alkate zela, 1994ko martxoan); eta garai hartan planteatu ziren halaber izateko bikoteei buruzko legez besteko lehen proposamenak. *Agerian* taldea sortu zuten emakumeek uste zuten gai horiek gay eta lesbianen gainerako elkarrekin batera bultzatu behar zituztela, gizon homosexualen sexu bereizkeria bera pairatzen baitzuten.

*Agerian* taldeko emakumeek lesbianeiei zuzendutako politika zehatzak planteatzen zizkioten gizarteari: emakumeak ere protagonista izango ziren sexualitatea errebindikatzen zuten, lesbianen amatasunaz hitz egiten zuten, sexu seguruari buruzko emakumeentzako tailerrak bultzatzen zituzten, lesbianentzako elkar laguntza taldeak sustatzen zituzten...

*Agerian Lesbianen Taldeak* Gay eta Lesbianen Eskubide Zibilen aldeko Lehen Eztabaida Jardunaldiak antolatu zituen 1994ean, Bilbon EHGA Mekin batera eta Gasteizen Arabako Lesbianen Elkartearekin eta y COGALekin batera. Jardunaldi horietan homofobia eta Zigor Kodeaz eta bikote homosexualen adopzioaz hitz egin zuten, gai horiek hezkuntzan lantzeko programen beharraz, generoaz eta sexu ereduez, bai eta homosexuala izateaz eta hedabideetan horrek zuen islaz.

*Agerian* taldeko emakumeek hitzaldiak, elkarrizketak eta sexualitate eta jeneroari buruzko mintegiak antolatu zituzten, bai eta *Lesagaybira* izeneko kirol ekitaldia –Bilbo eta Bizkaia aldean zenbait urtez burutu zen txirringa ibilaldia–. Horrez gain, ekainaren 28aren zioz antolatzen ziren manifestazio eta jaietarako deia egiten zuten, Bizkaiko gay eta lesbianen gainerako taldeekin batera.

Trantsizio, haustura eta mugimendu estilo berriaren sorrera garai haietan, Euskal Herriko Lesbianen III. Topaketa antolatu zuten lesbianen kolektiboek Bilbon, 1997ko abenduaren 6, 7 eta 8an. Horiek izan ziren azken Topaketak, eta kolektiboek gizartean parte hartzeari utzi zioten, pixkanaka-pixkanaka desagertu ziren arte (2005eko ekainean, Bizkaiko Lesbiana Feministen Kolektiboaren *deuseztatze jaia* egin zen).

## **LESBIANA FEMINISTEN MUGIMENDUTIK LGTB MUGIMENDURA**

---

Laurogeita hamarreko hamarkadan antolaketa eredu mistoak indarra hartu zuen berriro. Talde berrietan gay, lesbiana eta transexualek bat eginik lan egiten dute, elkarteek militantzia eskakizun murriztagoa dute parte hartzea zabaltzeko xedez, zerbitzuak sortzen dira eta interesguneen arabera taldeak bultzatzen dira: emakumeak, gazteak, transexualak, kristauak, senitartekoak, IHESak kutsatutakoak, etab. Estatu espainolean lesbiana feministen kolektiboak ez ziren guztiz desagertu, baina antolamendu estilo berria hedatuz joan zen eta talde ugari sortu ziren, gaur egun LGTB mugimendua izenez ezagutzen dena eratu arte. Hau da, Jordi Petiten hitzetan,

mugimendu horren helburu komuna: “*homosexualitatearen normalizazio soziala eta eskubideen erabateko berdintasuna*” (2003:25). Gaur egun, Gay eta Lesbianen estatuko federazioan (Federación Estatal de Lesbianas y Gays – FELGT) elkarturik daude estatuko LGTB talde asko, eta federazio hori da oihartzun sozial handiena duena. Euskadin ordea, ez da gauza bera gertatzen, Gehitu taldea baita federazio horretara bildutako elkarte bakarra.

Laurogeita hamarreko hamarkadan eta mende honetako lehen urteetan, estatu espainoleko hiriburu askotan LGTB mugimendura bildu ziren taldeak sortu arren, lesbiana feministen kolektiboek lanean segitu zuten, bilerak eginez eta zenbait aldizkari argitaratuz; besteak beste, Asturiaseko Lesbiana Feministen Kolektiboak kaleratzen zuen *Desde el Silencio*, Bartzelonako Grup de Lesbianes-ek ateratako *Tribades*, Madrileko Crecul taldearen *Informales*, Errioxako Kolektiboaren *Bailas*, L.S.D.ren *Non-Grata*, edo *Bollus Vivendi* fanzinea.

Talde mistoek ere –Salamanca COGLES, Kanaria Handiko Las Palmaseko GAMÁ edo Madrileko COGAM– aldizkariak kaleratu zituzten, eta gehien bat ekainaren 28ko ospakizuna dela eta burutzen zituzten ekintzen berri ematen zuten.

## ZENBAIT ONDORIO

---

Lesbiana militanteen taldeek aldaketa ugari izan dituzte bai helburuei dagokienean bai antolatzeke moduan, eta izenak ere anitzak izan dira; alabaina, lesbianen eta homosexualen onespeneren eta ikusgaitasunaren aldeko borroka segida izan du. Lesbiana eta gay taldeek eutsi egin diote 25 urteotan bereizkeria ororen kontrako salaketari eta berdintasun sozialaren eskaerari. Lesbiana feministen mugimenduak, lorpenak lorpen eta akatsak akats, oinarri ideologikoak ezarri zituen, ikusezintasuna salatzen hasi zen eta lesbianismoaren normalizazioaren alde lan egin zuen. Egun, LGTB mugimendua orduko emaitzak jasotzen ari da.

Sexualitatea, lesbianismoa, plazererako eskubidea eta sexu askatasuna mugimendu feministaren gogoeta eta lan ildo nagusiak izan ziren 70ko eta 80ko hamarkadetan, eta jardunaldi eta kanpainen bidez eztabaida zabala biztuarazi zuen gizartean gai horien inguruan. Garai hartan indarrez bultzatu zuten lesbianismoa.

Lesbianen taldeak eta lesbianismo batzordeak sortu ziren heinean, baina, mugimendu feministak haien esku utzi zuen lana; lantzean behin kanpaina bateratuak bultzatzen

dituzte, baina, oro har, sexualitatea eta lesbianismoa ez dira mugimendu feministaren lehentasunezko gaien artean azaltzen. Lesbianen kolektiboak mugimendu feministaren parte diren arren, ez da lortu lesbianismoa errebindikazio feministen artean txertatzea. LGTB mugimenduaren osaera berriaren ondorioz, 90eko hamarkadatik aurrera emakumeen mugimenduak aparteko gaitzat du lesbianismoa, eta mugimendu biek zein bere bideari segituko diote, elkarlotura handirik gabe.

Lesbianen kolektiboek eta mugimendu feministak generoaz eta sexualitatez eginiko ekarpen teorikoak mugimendu homosexualaren historiaren parte dira jada eta metaturiko jakintza hori ezin dugu galtzen utzi; era berean, genero ikuspegia txertatu behar dugu LGTB mugimenduaren egungo diskurtsoan.

Mugimendu feministak –zentzurik zabalenean eta tendentzia guztiak barne hartuta– lesbianismoaren eta emakumeen sexu askatasunaren aldeko borroka bere lehentasunen artean jartzea oso garrantzitsua litzateke, feminismoak lesbianeiei eskaintzen dien eztabaidagunea, bakarra ez bada ere, espazio berebizikoa baita. Mugimendu feministak maiz jarri izan ditu zalantzan emakumeen gaineko konbentzio sozialak, eta lesbianismoari dagokionean ere horrela joka dezan bultzatu behar dugu. Leonore Tieferrek (1996) dion bezala, garrantzitsua da feministek garatzen ari den sexualitatearen eta sexu terapiaren eraikuntzan parte hartzea, joera patriarkala murrizteko.

Euskadin badago emakumeen erakunde, udal kontseilu, koordinadora eta foroen sare zabala eta horiek bultzatzen dituzten ekintzetan sexu joera kontuan hartuko duten irizpideak gehitu behar dira, sexualitatea –eta bereziki lesbianismoa– ez dadin haien lan ildoetatik kanpo gelditu. Era berean, Udalek, Diputazioek eta Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituzten Berdintasun Planetako eduki eta ekintzetan lesbianen beharrak jaso behar dira, eta berdin jokatu behar da Unibertsitateek garatutako ikerketa eta azterlanetan.



**DIBULGAZIO KOADERNO HAU OSATZEKO ALDARTE IKERKETA ETA  
DOKUMENTAZIO ZENTROAK DITUEN FONDOAK ERABILI IZAN DIRA.**

---

Laguntza zerbitzua, kontseilua eta informazioa EMAKUMEA ETA LESBIANISMOA

- Aholkularitza eta sostengu psikologikoa
- Harrera eta elkar laguntzarako taldea
- Lege aholkularitza
- Counseling
- Formakuntza tailerrak
- Lesbianismo gaien espezializaturiko liburutegia, artxiboa, hemeroteka eta bideoteka
- Lesbianen eztabaida-lekua gure web gunearen bitartez

Aurkituko gaituzu:

Berastegi kalean, 5-5. departamentua 8 eta 9

48001 BILBO

[aldarte@aldarte.org](mailto:aldarte@aldarte.org)

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)

Astelehenetik-ostiralera:

10:00etatik-13:00etara eta 17:30-21:30era